

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

HIRI ETA LANDA GARAPEN ARLOA

Hiri Garapenaren Zerbitzua

Espazio publikoa arautzen duen udal ordenantzaren hasierako onespena

Denon ezaguerarako jakinarazten da jarraian azaltzen dela udal honetako Udalbatzarrak 2022ko irailaren 26an egindako osoko bilkuran hartu duen erabakiko xedapenenen atala:

Lehenengoa. Hasierako onarpena ematea espazio publikoa arautzen duen udal ordenantzari.

Bigarrena. Testu hori jendaurrean jartzea, oro har, eta interesdunei entzutea, bereziki, hogeita hamar egun balioduneko epean entzunaldia emanda, horretarako iragarkia ALHAOn argitaratzen denetik hasita. Epe horretan edonork aurkeztu ahal izango ditu alegazioak, erreklamazioak, iradokizunak eta ekarpenak.

Nolanahi ere, eta testua ahalik eta gehien zabaltze aldera, iragarkia udaleko ZUINen argitaratuko da. Gainera, bai iragarkia bai ordenantzaren testu osoa udalaren webgunean argitaratu egingo dira.

Azalpen-aldi hori amaitutakoan, Osoko Bilkurak edozein alegazio, erreklamazio, iradokizun edo testuari egindako ekarpen oro ebatziko du, hala badagokio, testuari behin betiko onespena emateko eta, ondoren, ALHAOn osorik argitaratzeko.

Alegaziorik, erreklamaziorik, iradokizunik edo ekarpenik aurkezten ez bada, une horretara arteko behin-behineko testua behin betikotzat joko da, Osoko Bilkurak beste erabakirik hartu beharrik gabe.

Nolanahi ere, osorik argitaratuko da ALHAOn, baina ez da indarrean jarriko da harik eta argitaratu eta hamabost egun baliodun igaro arte.

Hirugarrena. Argitaratzea dagokion iragarkia ALHAOn eta aurreko paragrafoan adierazitako gainerako komunikabide sozialetan”.

Espedientea kontsultatu ahal izango da astelehenetik ostiralera, Herriko plaza, z/g, 3. solairuko hiri eta landa garapen arloko bulegoetan, 8:00etatik 14:00etara.

Laudio, 2022ko irailaren 27a

Alkate-udalburua

ANDER AÑIBARRO MAESTRE